

**GIZABURUAGA (BIZKAIA)KO FRONTOIAREN
BIRGAITZE ETA, HALA BADAGOKIO OBREN
ZUZENDARITZA, PROIEKTUAREN IDAZKETAREN
KONTRATUAREN ESLEIPENAREN LEHIAKETARAKO
BETE BEHARREKO BALDINTZA TEKNIKOEN
PLEGUA**



AURREKARIAK

Gaur egungo Gizaburuagako frontoia 1960-koa da. 1980an estaltze eta berritze obrak egi ziren, gaur egungo itxura emanez. Bolumena erdi lurperatuta dago malda handiko mendi hegalaren aurka.

Kantxa tamaina txikiko frontoia da, hezetasunak aurkeztuz estalduran eta alboko horma luzean, “ezker horman”. Jokalekua gutxi babestua dago eta kontrakantxa estua da.

Oraintsu, 2018-an, errebotearen (atzeko horma) atzean komunek eta aldagelek osatzen zuten bolumena eraitsi da. Zaharkituak eta ez-erabilgarriak ziren jada, eta ez da beharrezkoa izango etorkizunean berriz jartzea, beste eraikin batean eginda baitaude berriak.

Orain, Gizaburuagako Udalak, ideien lehiaketa bat proposatzen du. Lehiaketa hortatik proiektuaren egilea aterako da; era berean, birgaitze obren zuzendaria ere bai.

ORGANISMO DEITZAILEA

Gizaburuagako Udala

LEHIAKETAREN HELBURUA

Lehiaketaren jomuga bolumenaren zehazketa arkitektoniko eta estrukturala da; era berean, ingurunearekiko integrazioa ere bai.

Eskaera funtzionalak, errepresentatiboak, etetikoak, ingurune urbanoarekin harremanekoak eta bideragarritasun ekonomikoak modu egokienean ebatzen dituen diseinua aukeratuko da epaimahaiaren irizpideen arabera.

INGURUNEAREN DESKRIBAPENA

Erreformatu beharreko eraikina Eguen auzoaren erdian kokatuta dago, udaletxearen aurrean.

Gizaburuagako katastro urbanoan ondorengo zenbaki finkoekin zehaztuta agertzen da:

N9352964W, N9352966P eta N9352965H.

Landu beharreko bolumenaren plataforma ondorengo mugakide da:

Hegoaldetik BI-3447 errepidearen hiri zeharbidearekin. Errepidearen espaloiarekin alderatuta, plataforma garaiago aurkitzen da.

Iparraldetik malda handiko mendi-hegalarekin. Alboko horma luzea naturaleza karstikoko mendi-hegal honen kontrara eraikita aurkitzen da.

Mendebaldetik bide-zorrarekin.

Ekialdetik plaza publikoko espazio urbanizatuarekin.

Hegoekialdeko atzekaldean derrigor mantendu beharreko oroitarri bat aurkitzen da, baina lekualda daiteke.

ERAIKINAREN DESKRIBAPENA

Eraikinaren hasierako eraikuntza, 1960. urte ingurukoa dena, estali gabeko frontoi motz bat zen, "in situ" enkofraturiko hormigoizko paretekin, barne zarpiatu leundu eta margotuarekin.

80. hamarkadaren hasieran, estalketa eta aldagelen prestaketa egin ziren. Aldagela hauek errebotearen atzean kokatu ziren (oraintsu botatako atzeko aldeko pareta).

Sabaiaren estruktura metalikoa da, eta estaldura altzairuzko txapa sinplea. Gaur egungo sabaia horma luzean eta luzetarako saretazko zertxa arin batekin, frontisean eta atzealdeko euskarri metaliko bakar batean bermatua aurkitzen da. Biderantzko babesa kiroleko sare tenkatu batek osatzen du.

Frontiseko arkugaineraren gainaldean, plazako alderantz, Ángel Lertxundi eskultoreak egindako hormako eskultura bat aurkitzen da.

Ipar-ekialdeko izkinan rokodromoa aurkitzen da.

Gaur egun, kantxaren zoru bukatua 0,9 eta 1,25 m artean aurkitzen da espaloiarene mailaren gainetik.

Bestalde, gaur egungo Plangintza Munizipalaren Arau Subsidiarioen arabera, kirol erabilerako Sistema Orokor bezala kalifikatua aurkitzen da.

JOMUGAK ETA BEHARRIZENEN PROGRAMA

Beharrezkotzat jotzen da eraikina birgaitzeko lanei ekitea, kantxa eta kontrakantxa handitzeko. Kantxa gutxi babestua aurkitzen da, eta kontrakantxa estua da.

Bestalde, konpondu beharreko oinarrizko gai batzuk daude:

- Alboko horma luzeko hezetasunak.
- Bolumenaren handitzea luzetara, alboko horma eta sabaia luzatuz.
- Ur-iragazketak eta hezetasunak estalkian.
- Argiztapen artifizialeko sistema egokitzea.

- Hiri zeharbidera, atzeko hormara eta frontisaren luzapenera fatxada berriak sortzea . Ez da ezinbestekoa barrutia hertsiki ixtea, baina bai euriak haizearekin ekarritako eguraldi txarretik babestea.

Helburuen artean dago estalitako espazioak noizean behin pilota-jokoaz bestelako ekitaldiak hartzeko aukera ematea: kontzertuak, herri-bazkariak, aizkolariak,..., etc. Zirkunstantzia horiek kantxara sartzeko sarbide egokiekin bideratu beharko dira, ibilgailuak errazago igaro daitezten.

Printzipioz, ez da aurreikusten harmailak jartzea, baina etorkizunean aukera hori irekita gera daiteke.

Ez da beharrezkoa izango aldagelak edota lokal osagarriak ezartzea, ez orain ezta etorkizunean ere, dagoeneko beste eraikin batean gaituta baitaude. Kontrol elektrikoko armairu bat integratu beharko da.

Ángel Lertxundi eskultorearen horma-eskultura gaur egungo lekuan mantendu nahi da, baina beste kokapen bat proposatzen bada, eskulturaren egilearekin adostuta egin beharko litzateke.

Ipar-ekialdeko izkinako rokodromoa, printzipioz, leku berean mantendu nahi da.

ERAIKINERA BISITA

Eraikinerako bisita programatu bat egingo da, lehiaketan parte hartzen duten eta nahi dutenekin, udal arkitektoak edo bere ordezkariak beste norbaitek lagunduta.

DOKUMENTAZIO INFORMATIBOA

Honako dokumentazio hau jarriko da lehiakideen eskura:

- Eraikinaren eta bere inguruaren egungo argazkiak.
- Kokapen-planoa.
- Hiriguneko estalkien planoak.
- Bizkaiko Foru Aldundiko 1/500 eskalako plano topografikoa, esku-hartze eremuarekin.

KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren xedea honako hau izango da:

- 1.- 3 eta 5 ideia bitarteko aurretiazko hautapen-aurreproiektua.
- 2.- Oinarrizko Proiektua idaztea.
- 3.- Egikaritze-proiektua idaztea. Dokumentu hauek izango ditu:
 - Memoria.
 - Planoak.
 - Baldintza plegua.

- Neurketak eta aurrekontua.
 - Lanak garatzeko programa bat edo obra plan adierazgarri bat, hala badagokio, denbora eta kostua aurreikusiz.
 - Kalitatea kontrolatzeko plana.
 - Segurtasunari eta osasunari buruzko azterlana.
 - Eraikuntzako eta eraispenerako hondakinen kudeaketari buruzko azterlana.
4. Goi-mailako arkitektoaren Obra Zuzendaritza.

Proiektua idazteko deskribatutako lanek barne hartuko dute obrak gauzatzeko lehiaketa publikoa propositatzeko behar den dokumentazio guztia, bai eta obrak gauzatzeko eta erabiltzeko behar diren baimen guztiak eskatzeko ere.

ORDAINSARIAK

Exekuzio materialaren aurrekontuaren eta aurreikusitako azaleraren arabera (625.000 € eta 670m² -ko esku-hartze eremua), eta ehunekoen modulazioa eta erreformaren kontzeptua kontuan hartuta, honako ordainsari fakultatibo hauek kalkulatu dira, EHAEoren ordainsari profesionalen gutxi gorabeherako baremoen arabera:

Oinarrizko proiektua.....	22.400 €
Ejekuzioaren proiektua.....	16.800 €
Obraren zuzendaritza (arkitektua).....	16.800 €
Guztira BEZ gabe.....	56.000 €
BEZ %21.....	11.760 €
Guztira BEZ-a barne.....	67.760 €

AZKEN XEDAPENA

Oinarri hauetan aurreikusi edo arautu ez diren alderdiak, bai eta horien interpretazioa ere, lehiaketa honen ondoriozko zalantzak edo bestelako arazoak sortzen badira, epaimahaiak ebatziko ditu soil-soilik, eta erabakiak oinarri hauen interpretazio autentikoaren presuntzioaz hartuko ditu.

Gizaburuagan, 2020ko martxoaren 7an.

**DOKUMENTU HAU UDALBATZAK 2020KO MARTXOAREN 11 EGINDAKO
BILKURAN ONARTUA IZAN DA.**

Iz: Idazkariak, M^a Pilar Eizagirre Murelaga